

# Goazen elkarrekin

Familien arreta goiztiarrerako  
lehen hurbiltzea



**Arreta goiztiarreko esku hartzea**

Arreta goiztiarreko esku hartzea  
Ikusteko desgaitasuna duten hurren familiei zuzendutako gidak

**Elkarrekin begiratzen: 0 eta 3 urte artean ikusmena estimulatzeko gida**

Lehenengo argitalpena: 2021eko ekaina

© **Argitalpen honetarako:**

Organización Nacional de Ciegos Españoles (ONCE)  
ONCEren Zuzendaritza Nagusia Hezkuntza, Enplegu eta Braille Zuzendaritza  
Calle del Prado, 24; 28014 Madril (Espainia)

**Argitaratzailea:**

Hezkuntza, Enplegu eta Braille Zuzendaritza. ONCEren Zuzendaritza Nagusia

**Gida honetarako laguntzaileak (ONCEren Madrilako CREko arreta goiztiarreko zerbitzua):**

Milagros Boubeta Parceró — Irakaslea.  
Carmen Herrero Menéndez — Psikologoa.  
Isabel Herrero Pérez — Gizarte langilea.  
Pablo Martín Andrade — Irakaslea.  
Julia Martín Cuerdo — Irakaslea.

**Gidaren koordinatzailea:** Francisco López Montellano, irakaslea.

**Bildumaren laguntzaileak:**

Pilar Carballo Lado — ONCEren Pontevedrako CREko pedagogoa.  
María Dolores García Payá — ONCEren Alacanteko CREko irakaslea.  
Francisco López Montellano — ONCEren Madrilako CREko irakaslea.  
Montse Morral Subirá — ONCEren Bartzelonako CREko irakaslea.  
Coral del Pilar Regidor Poyatos — ONCEren Sevillako CREko irakaslea.

**Bildumaren koordinatzailea:** M.<sup>a</sup> Ángeles Lafuente de Frutos, ONCEren Hezkuntza, Enplegu eta Braille Zuzendaritzako Hezkuntza Arretarako Departamentuko teknikaria.

**Ilustrazioak:** Mariona Coma Segalés.

**Diseinua eta maketazioa:** Francisco Javier Martínez Calvo.

Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe · CC BY-NC-ND



*Creative Commons lizentzia honek gida erabilera pertsonalerako deskargatzeko eta inprimatzeko aukera ematen du, bai eta beste pertsona batzuekin partekatze ere, betiere egiletza aintzatetsita. Ezin dira edukiak inolaz ere aldatu eta ezin da merkataritza xedeetarako erabili.*

Gida hauetan proposatu den estimulazio materiala helburu terapeutikoetarako hautatu da. Materialaren hartzaileen ezaugarriak kontuan hartuta, hartzaileen segurtasuna bermatu eta istripuak prebenitze aldera, pertsona heldu baten zaintzapean bakarrik erabili beharko da.

ONCEk konpromiso irmoa hartu du emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioaren defentsa eta aplikazio eraginkorarekin eta Erakundeak egindako barneko eta kanpoko komunikazioetan lengoia ez sexista erabiltzen dela ziurtatu nahi du. Horretarako, sexua zehaztu gabe pertsonak aipatzen dituzten idazketa teknikak erabiltzen saiatzen da. Hala ere, dokumentu arauemaietan, zenbaitetan, termino generikoak erabili behar izaten dira, bereziki pluralen kasuan, argitasuna, zuzentasuna eta irakurteraztasuna bermatzeko, baina horrek ez du esan nahi generoa desberdintzearen garrantzia ezagutzen ez denik edo erakundeak berdintasun politikekiko eta sexuagatiko bereizkeriaren aurkako borrokkarekiko konpromiso txikiagoa duenik.

## Aurkibidea

---

<b><i>Ikusteko desgaitasuna duten hurren familiei zuzendutako giden aurkezpena.....</i></b>	<b>4</b>
Gidak .....	4
<b>Badirudi ez didala begiratzeko... Zer du nire haurtxoak begietan? .....</b>	<b>5</b>
<b>Lagungarria izan daitekeen informazioa .....</b>	<b>6</b>
Nola garatzen da haurraren ikusmena .....	6
Zeri jarri arreta .....	6
<b>Gai izango al naiz nire haurrari behar duen hori emateko? .....</b>	<b>7</b>
Zer egin dezaket nik? .....	7
Nola egin dezaket?.....	7
<b>Ez zaudete bakarrik.....</b>	<b>8</b>
<b>Eta orain zer? .....</b>	<b>9</b>

## ***Ikusteko desgaitasuna duten haurren familiei zuzendutako gidaren aurkezpena***

---

Aurreko ikasturteetan ONCEren hezkuntza arloko esku hartzearen uneko egoeraren gainean egindako azterketa eta balorazioa kontuan hartuta, ONCEren bost Hezkuntza Baliabideen Zentroen (aurrerantzean, CRE, gaztelaniako akronimoaren arabera) eta Ikusteko Desgaitasunerako Hezkuntza Arretako Talde Espezifikoaren eskutik egin zena, hainbat batzorde edo lantalde sortu ziren. Arreta Goiztiararen ardura duen batzordea osatzen dute Arreta Goiztiarreko Talde Dinamizatzaileko (DATO Taldea) ONCEren CREetarako bost loturako pertsonak eta talde horren koordinatzaileak diren Erakunde honen Zuzendaritza Nagusiko kideak.

Batzorde horrek planteatutako helburuetako bat izan zen hainbat dokumentu prestatzea, familiei zuzendutako gida moduan, arreta goiztiarreko zerbitzuetara eta haur hezkuntzan laguntzeko zerbitzuetara datozen haurrekin profesionalak gauzatzen duten esku hartzea osatzeko. Horretarako, CRE bakoitzeko Arreta Goiztiarrerako lantegien laguntza izan dugu.

Helburua da ikusteko desgaitasuna duten haurren arreta goiztiarreko esku hartzean laguntzea, haur hauei eta beren familiei zuzendutako sostengua ematea, CREetako arreta goiztiarreko lantegietarako hezkuntza baliabideak sortzea, sareko lana eta materialak, dokumentazioa eta informazioa partekatzen jarraitzeko aukera sustatzea eta profesionalak laguntza emateko beste baliabide bat sortzea. Espero dugu hedapen ekintza hauek arreta goiztiarra, arlo horretan diharduten profesionalen beharrak, egin beharreko esku hartze motak eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak ezagutzera ematea.

### ***Gidak***

Jarraian aurkeztu ditugun gidak familiei zuzendutakoak dira bereziki, baina edukiak profesionalen interesekoak ere badira. Honako hauek dira:

- ***Goazen elkarrekin gida, familiek arreta goiztiarrekin hasierako kontaktua izan dezaten.*** Gida hau itsutasuna edo ikusmen urritasun larria duten haurren gurasoei zuzendua dago, euren seme-alabak ikusteko arazoren bat duelako berria edo susmoa duten momentu beretik hasita laguntza jaso dezaten.

Arreta goiztiarreko zerbitzuko profesionalak, familien aldamenean egonda, beren ahalegina eta esperientzia jartzen dituzte hauen zerbitzura, haurren jokabideak aztertuz seme-alaben egoera emozionalak eta beharrak behar bezala identifikatzeko eta interpretatzeko gai direla senti dezaten, hartara hazkuntza konfiantzarekin eta gozatu garatu ahal izateko.

- ***Elkarrekin ibiltzen autonomia gida.*** Gida honek orientazioa eskaini nahi die familia eta profesionalak elikaduraren, garbitasunaren, janztearen eta ordenaren ohituren arloan, bai eta mugikortasunarekin lotutako alderdien inguruan ere, 0 eta 6 urte bitarteko autonomia hobetzeko helburuarekin. «Haurrek ez dute arrakasta izango haien ordez egin duzunari esker, baizik eta haien kabuz egiten irakatsi diezunari esker» (Ann Landers).
- ***Elkarrekin begiratzen ikusmena estimulatzeko gida.*** Gida hau ikusmen urritasun larri bat duten haurrekin diharduten familia eta profesionalak zuzendua dago. Ikusmen txikia duen haurtxoaren bilakaeran kontuan hartu beharreko oinarritzko faktoreak modu erraz eta ulergarrian aurkezten ditu, haurren ikusmen hondarrerako estimulatuzaileak diren baliabide, jolas eta oinarritzko elementuei esker. Lan hau ONCEren arreta goiztiarreko zerbitzuetan lan egiten duten profesionalen etengabeko azterketaren, esperientziaren eta hausnarketaren emaitza da.

Halaber, helburua da ONCEk familiekin lan egin eta ibilbide honetan laguntzeko eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutzera ematea, familia bakoitzari banakako sostengua emanda familia taldearen eta haurtxoaren ezagutza eta behaketari eta zuzendutako lanari esker.

## Badirudi ez didala begiratzen... Zer du nire haurtxoak begietan?

Gida hau irakurtzen ari bazara, seguruenik, zure seme edo alabaren ikusmenaren inguruko zalantzak dituzu. Agian medikuek esan dizute ikusmeneko patologiaren bat duela edo agian arazoa agerikoa da; agian ikusteko arazoren bat duelako susmoa duzu, oraindik erantzun eta diagnostiko zuzenak jaso ez badituzu ere. Bi kasuetan, zure ondoeza eta sortzen zaizkizun zalantzak erabat ulergarriak dira.

Zeure buruari «Zergatik niri?» edo «Zer egin dut gaizki?» galderak egitea normala da. Normala da ere diagnostikoaren zuzentasuna zalantzan jartzea eta agian akatsen bat egin dutela pentsatzea. Normala da triste egotea eta egoera gainditu ezingo duzula sentitzea.

Zure haurtxoa izugarri maite duzu. Elikatzen duzu, garbitzen duzu, kontsolatzen saiatzen zara... Hala ere, zure seme edo alabak zer edo zer gehiago behar duela sentitzen duzu eta baliteke zure seme edo alaba ulertzea zaila izatea.

1. ilustrazioa. Lotura



Espero dugu zure bikotearen, zure gurasoen edo beste senide eta lagunaren sostengua izatea; zalantzarik gabe, horiek guztiak oso garrantzitsuak dira. Dena den, orain, pertsona hauen hurbiltasunaz eta asmo oneko gomendioez gain, honelako egoeretan esperientzia duen eta zure seme edo alabari gertatzen zaiona hobe ulertzen laguntzen dizuten erantzunak lortzeko laguntza ematen dizun pertsona bat behar duzula pentsatzen hasi zara.

Azken batean, zure seme edo alabaren ikusteko gaitasunari buruzko zalantzak badituzu, egin beharreko lehenengo gauza da pediatrarekin hitz egitea eta oftalmologiako espezialista batengana eramatea diagnostiko bat izateko.

Diagnostiko horrek patologiaren bat azaleratzen badu, ikusmen maila edozein izanda ere, zuri laguntzen ahaleginduko gara, izan ere, oso haur txikia izanda, oraindik ere ezingo da zehazki baloratu ikusmen maila.

## Lagungarria izan daitekeen informazioa

---

### *Nola garatzen da haurraren ikusmena*

«Ikusten ikasteko» gaitasunarekin jaiotzen gara; haurtxoak, jaiotzean, ez du guk bezala ikusten. Jaioberriaren ikusmena pixkanaka garatzen da, heltzen da eta hobetzen da bizitzako lehenengo urteetan zehar eskuratzen den ikusmen esperientziari esker.

### *Zeri jarri arreta*

Ikusteko desgaitasuna duten haurrek gainerakoek dituzten oinarrizko behar berak dituzte. Maite dituztela sentitu behar dute, estimuluak jaso behar dituzte eta inguruan duten munduari buruzko gauzak ikasteko aukerak behar dituzte. Familiak haurraren garapen prozesuan parte hartzea ezinbestekoa da.

Hona hemen lagungarriak izan daitezkeen jarraibide batzuk.

- Haur guztiek hurbil sentitu behar dituzte gurasoak. Hauritsuak edo ikusteko desgaitasuna duen haurrak senideen ahotsa entzuteko beharra du; horiek dira haurtxoaren erreferentziak.
- Arreta jarri beharko diogu haurra esna dagoenean, aktibo mantentzen saiatu beharko dugu jolasak, kankak eta abar erabilia.
- Hauritsuak edo ikusteko desgaitasuna duen haurrak belarria orientatu ohi du hizketan ari den pertsonarantz, aurpegia alde batera begira utzita. Ez kezkatu hau gertatzen bada hasieran.
- Haurtxo guztiek bezala, hauritsuak besoetan har ditzagun behar dute, euren gorputzak zaintzen dituen helduarekin kontaktuan sortarazten dizkien sentipenak nabaritzeko. Horrek segurtasuna ematen die.
- Haurrak adierazpenik egin ez arren, adi-adi egongo da eta gure ahotsa eta laztanak sentitzeko irrikatan. Bere gorputzari buruz hitz egingo diogu eskuak, aurpegia, oinak eta abar ukitzen dizkiogun bitartean. Kankak edo hitz jokoak erabil ditzakegu laguntzeko.
- Beste edozein haurrekin gertatzen den moduan, inguruan gertatzen den guztiari buruz hitz egingo diogu eta ahoz azalduko diogu jarraian egingo duguna.
- Itsutasuna edo ikusteko desgaitasuna duten haurrek denbora gehiago behar dute inguruan dutena ulertzeko eta proposatzen dieguna konprenitzeko. Ez gara larritu behar haurraren erantzuna espero dugun momentuan eta moduan iristen ez bada.

## Gai izango al naiz nire haurrari behar duen hori emateko?

### Zer egin dezaket nik?

Zure seme edo alabaren behar primarioak asebetetzeko gai bazara (elikadura, zaintza eta babesa) eta, gainera, jolasak garapenerako duen garrantzia ezagutzen baduzu, zure helburua lortzeko behar duzun guztia izango duzu.

Seme edo alabarekin egingo dituzuen lehenengo jolasak haurtxo guztiekin egiten direnak izango dira. Mugimendua eta zentzumenak erabiliko dituzue. Sehaskatzea, laztantzea, kantatzea eta ferekak egitea lagungarriak izango dira haurtxoaren gozamina areagotzeko eta elkarrekiko maitasuna sustatzeko.

### Nola egin dezaket?

- Belarria hizketan ari den pertsonarantz orientatzen duen haurrari, pixkanaka pixkanaka irakatsiko zaio, estimuluen bidez, aurpegia hizketariari zuzentzen, ohikoa den moduan.
- Jostailuak eskura hurbilduko dizkiogu kontaktua sentitzen duenean eskua ireki eta heldu diezaien. Orduan irakatsiko diogu jostailua nola mugitu. Lengoia erabili beharko dugu beti jolasetan.
- Utzi haurrari parte hartzen bere kabuz hartu dezakeena eskuera jarrita (txupetea, biberioia, koilara, jostailuak...).
- Haurraren espazioa jostailuz beteta egon ez dadin ahaleginduko gara, arreta eskuekin egiten ari den horretan jar dezan.
- Eguneroko bizitzaren askotariko esperientziak ahalbidetuko dizkiogu, etxean eta etxetik kanpo (bainugelara, lorategian edo parkean...).
- Okertzeko aukera emango diogu haurrari, esperientziarekin ikas dezan, izan ere, okertzen uzten ez badiogu, bere ikaskuntza zuzenduegia izango da eta ekimena ukatuko diogu.

2. ilustrazioa. Arreta goiztiarreko profesionalekin lankidetzan



## Ez zaudete bakarrik


Seguruenik zalantza eta kezka ugari dituzu ikusteko desgaitasuna duen zure seme edo alabaren garapenari eta jokabideei buruz eta, agian, entzungo eta lagunduko dizuten espezialisten beharra sentituko duzu.

Arreta hori ONCEren Hezkuntza Baliabideetako Zentroetako (CRE) arreta goiztiarreko zerbitzuen bitartez edo herrialde osoan zehar banatuta dauden ikusteko desgaitasunaren arreta espezifikorako taldeen bitartez eskaintzen da. ONCEk lankidetzat hitzarmenak ditu erkidegoetako administrazioekin haur hauei arreta emateko.

ONCEren Alacanteko CRE	965 267 000
ONCEren Bartzelonako CRE	932 381 111
ONCEren Madrileko CRE	913 535 600
ONCEren Pontevedrako CRE	986 856 200
ONCEren Sevillako CRE	954 989 311

Arreta goiztiarreko zerbitzu hauen baitan hainbat profesional espezialista daude, horietako bakoitza eginkizun espezifikoeekin; gehienbat psikologoak, gizarte langileak eta irakasleak izaten dira. Profesional hauen baterako jardunak haurrek eta familiek behar duten arreta espezifikoa eskaintzea ahalbidetzen du.

### 3. ilustrazioa. Ikusmenaren pertzepzioa estimulatzeko





Arreta goiztiarraren helburua da haurraren garapen optimoa lortzea. Ikusteko desgaitasuna duen haurrari laguntza emango zaio desgaitasuna konpentsatzeko ikusmenaren funtzionamendu onena lortzeko estrategiak aurki ditzan. Helburu hori lortzeko, familiak, haurrak hoberen ezagutzen dituen izanda, funtsezko eginkizuna du; hala ere, arreta goiztiarreko profesionalen laguntza ere baliagarria izango da, ikusteko desgaitasuna duten haurrekin lanean esperientzia eta prestakuntza espezifikokoak baitituzte.

## Eta orain zer?

---


Orain hasiko da haurraren independentziara doan bide luzea. Hazten lagundu beharko diogu zentzu zabalean, barne hartuta bere adimenaren garapena ahalbidetzen duten eta gizartean bizitzeko aukera ematen dioten gaitasun eta trebetasun berrien etengabeko ikaskuntza. Bide luzea izango da eta, zenbaitetan, beste era batera irakatsi beharko diegu, haur hauek duten objektuen eta munduaren pertzepzioa bakoitzaren ikusmen mailaren arabera baita eta, oro har, ukimena eta entzumena garrantzitsuagoak izaten baitira ezaguerak eskuratzeko orduan.

### 4. ilustrazioa. Hazkuntza partekatua



Elkarrekin lagunduko diogu zure seme edo alabari bere garapen prozesuan, iristear dauden erronka guztiak gainditzeko gai izan dadin: komunikatzea, jolastea, bere kabuz jatea, ibiltzea, beste haur batzuekin partekatzea eta ikasten jarraitzea.

5. ilustrazioa. Familia da haurtxoaren sostengua



**Haztea zirrargarria da ... Goazen!**



*Arreta goiztiarreko esku hartzea*

